



BALIO PROPOSAMENA

Proiektu honekin lortu nahi duguna, etxetik ile-apaindegira joateko edo edertasun oinarrizko zainketak berreskuratzeko atera ezin diren pertsonen aparteko laguntza ematea da, hau da, ile-apaindegi baten zerbitzuak eskaintzeaz gain, laguntza ere eskaintzen dugu autonomoak ez diren pertsonen gure zerbitzuetaz gozatu ahal izateko. Horregatik, ile-apainketako kamioia ezin hobea da adinekoentzat edo desgaitasunen bat dutenentzat. Horretaz aparte, ileapaindegi arrunt batek ematen dituen zerbitzu berberak emango ditugu guk, hala nola: ilea moztu, ilea tindatu, ilea produktu berezi batzuekin garbitu, orrazkera bereziak egin, makillatu...



Azpimarratzekoa da, txakurrentzak dagoeneko, badituzte merkatuan ezaugarri hauek dituzten ileapaindegiak, pertsonentzako berriz, ez da honako ezaugarri hauek dituen ile apaindegi existitzen. Horrek esan nahi du, gu lehenak izan garela proiektu hau aurrera eramaten, hortaz ospe handia irabazteko aukera paregabea dugu dena ondo kudeatzen eta antolatzen badugu. Gainera jende gure proiektuaz interesatuko da haientzako gauza berria eta bitxia izango delako, horrek puntu positiboak ekarriko dizkigu herrietan zehar gure proiektuaz hitz egingo dutelako.



Gainera beste ileapaindegieekin konparatuz, erosotasuna eta laguntza eskaintzen dugu, gehien bat autonomoak ez diren pertsonentzat pentsatu ditugu baldintza hauek haien alde batetik nahiak ehuneko ehunetan betetzeko eta beste aldetik gure kamioian eroso eta lasai egoteko. Hori gutxi balitz, bezero gehiago irabazteko hainbat metodo aplikatuko ditugu marketing eta deskontuen bidez.



Merkatu-azterketa egitean, konturatu gara gure proiektua arrakasta izateko aukera duela, jende gehienari gustatuko litzaiokeelako kamioia haien etxe azpian egotea, batez ere proiektu hau ezgaitasun fisikoren bat duten pertsonak asko eskertuko dute haien bizimodua erreztuko delako, hau da, gure kamioi barruan lasai, eroso eta gustura egoteko ahal dugun guztia egingo dugulako.